



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko apirilaren 7a

31. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Iruñeko Udalarari buruzko fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina ([2. or.](#)).
- Berriozarko Udalarari buruzko fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina ([16. or.](#)).
- Barañaingo Udalarari buruzko fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina ([20. or.](#)).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Iruñeko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Iruñeko Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, argitaratzea.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Iruñeko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (2. or.).
 - II. Helburua (6. or.).
 - III. Norainokoa (6. or.).
 - IV. Iritzia (6. or.).
 - IV.1. 2004ko aurrekontuaren likidazioari dagokionez (7. or.).
 - IV.2. 2004ko abenduaren 31ko ondare-egorearen agerpena (7. or.).
 - IV.3. Legezketasuna (7. or.).
 - IV.4. 2004ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko-finantzarioa (7. or.).
 - IV.5. Informazio osagarria eta azalpen oharrak (8. or.).
 - IV.6. Comptos Ganberaren aurreko txosteneko gomendioen jarraipena (8. or.).
 - IV.7. Laburpena eta ondorio nagusia (8. or.).
 - IV.8. Ondoko gertakariak (9. or.).
 - V. Iruzkinek, ondorioak eta gomendioak (9. or.).
 - V.1. Langileria (9. or.).
 - V.2. Kontratazioa (erosketak eta inbertsioak) (12. or.).
 - V.3. Udal eraikinak (13. or.).
 - V.4. Transferentziak (14. or.).
 - V.5. Pasibo finantzarioak (14. or.).
 - V.6. Dirusarrerak (14. or.).
 - V.7. Informazio osagarria eta azalpen oharrak (14. or.).
 - V.8. Gorabeherak (14. or.).
 - V.9. Udalaren menpeko erakundeak (15. or.).
- Iruñeko Udalaren behin-behineko fiskalizazio txostenari Iruñeko alkateak egindako iruzkinak (16. or.).
- Iruñeko Udalaren urteko kontu bateratuen oroitazkia, 2004ko abenduaren 31n.
- (Oharra: aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta ondoko webgunean:
www.cfnavarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

Iruñeko Udalak, 2004ko urtarrilaren 1ean, 191.865 biztanle zituen errolatuta. Iruñeko Udalak, 2004ko abenduaren 31n, honako datu hauek agertzen ditu:

- Administrazio orokorra:

	Euroak, milakotan	
	Aitorturiko eskubideak	Aitorturiko betebeharrak
Udala	169.707	166.534
Hirigintza Gerentzia	18.449	17.492
Haur eskolak	4.470	4.837

- Enpresak

	Jarduera	Parte-hartzearen ehunekoa	Auditoretza independentea
Comiruña, S.A.	Txikizkako merkatuak	100	Bai
Mercairuña, S.A.	Handizkako merkatuak	51	Bai
ANIMSA	Udal informatika.	78	Bai
Pamplona Centro Histórico S.A	Hirigune historikoaren hirigintza	100	Bai
Congresos Pamplona C.B.S.A.	Biltzarren kudeaketa	30	-

Enpresak	Gastuak	Dirusarrerak	Emitzak
Comiruña, S.A.	444	453	9
Mercairuña, S.A.	1.134	1.275	141
ANIMSA	5.882	5.940	58
Pamplona Centro Histórico S.A	271	185	-86
Congresos Pamplona C.B.S.A.	z.g.	z.g.	z.g.

- Fundazioak:


	Jarduera	Gastuak	Dirusarrerak	Emitza	Auditoretza
Gayarre Antzokia	Kultur kudeaketa.	2.378	2.360	-18	Bai
Erruki etxea	Zahar-etxea	14.264	16.188	1.924	Bai

- Besterik:


Udala sarturik dago Iruñerriko Mankomunitatean, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri hondakin solidoen tratamendukoak eta hiri garraiokoak.

Su-itzaltze zerbitzua ematen da Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendurako Partzuergoaren bitartez, eta haren kontuak Nafarroako kontu orokorretan sarturik daude.

Ondoko grafikoan adierazten da Iruñeko Udala-
ren egituraren eskema:



Udalaren administrazio orokorraren organigrama ondoko grafikoan ikus daiteke:



* Nafarroako toki araubidea gaurkotzeari buruzko 11/2004 Foru Legeak 2004ko azaroaren 25ean hartu zuen indarra; haren bidez zenbait aidaketa eman ziren udalaren antolamenduan.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Iruñeko Udalak eta haren erakunde autonomoek 2003ko ekitaldian izan duten kudeaketa ekonomiko eta finantzarioa eta gastu- eta dirusarrera-aurrekontuen betetzea fiskalizatu ditugu.

Toki entitateari aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute: aipatutako legeek, Toki araubidearen oinarriak arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Nafarroako Administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuak, administrazio-kontratazioari eta hirigintza-kudeaketari buruzko araudiak eta Nafarroako toki entitateei oro har aplikatzekoa den gainontzeko araudiak.

Kontabilitate eta aurrekontu gaitako araubide juridikoa Nafarroako toki administrazioarentzako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzko 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuetan ezartzen da.

Nabarmendu beharra dago 2004ko ekitaldian Nafarroako toki araubidea gaurkotzeari buruzko urriaren 29ko 11/2004 Foru Legea onetsi zela, eta lege horren helburu eta edukien artean azpimarratzekoa dela Iruñeko Udalari hiri handien araubidea aplikatu behar zaiola, estatuan 57/2003 Legearen bidez ezarri zena.

Txostenaren helburua da honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea:

a) Iruñeko Udalaren 2004ko ekitaldiko aurrekontuaren garapena eta betetzea.

b) 2004ko abenduaren 31ko ondare-egoeraren agerpena, aplikatzekoak diren kontabilitate-printzipioei jarraituz.

c) Jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari lotua egon ote den.

d) Zein zen udalaren finantza-egoera 2004ko abenduaren 31n.

e) Iruñeko Udalaren finantzen egoera-orrien informazio osagarrian eta azalpen oharretan ageri diren datuen eta iruzkinen onargarritasuna eta koherentzia.

f) Egin zuen azken fiskalizazio-txostenean, zeina 2003ko ekitaldiari buruzkoa baita, Comptos Ganberak eman zituen gomendioak noraino bete diren.

III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak, bere jarduketa programarekin bat, Iruñeko Udalaren (aurrerantzean, "udala") finantzen egoera-orrien fiskalizazioa egin du; egoera-orri horietan sarturik daude 2004ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria, aurrekontu-emaizta eta diruzaintza-gerakina, bai eta egoera-orri horien informazio osagarria eta azalpen oharrak ere. Informazio horretan sarturik daude udalaren eta haren erakunde autonomoen aurrekontu-likidazio bateratua eta udalaren, erakunde autonomoen eta partaidetza, osotara, udalarena duten sozietateak (Comirufña eta Pamplona Centro Histórico. or.).

Gainerako udal entitateei dagokienez, gure helburua da kanpo auditoretzako txostenak aztertzea, horietatik ondorioak eta gomendioak ateratzeko.

Lana dirusarrera eta gastuei dagozkien atal ekonomikoen eta ondare-masa ezberdinen ikuskapenean gauzatu da, eta antolamendu, kontabilitate eta barne-kontrolako gaiak aztertu dira.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsiriko fiskalizazio-printzipio eta araei jarraituz burutu dugu lana eta halaber, egoeraren arabera beharrezkotzat jo ditugun froga guztiak ere egin ditugu.

Txostenean daude udalaren eta haren erakundeen antolamendua, barne-kontrola, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko beharrezkotzat jotzen ditugun iruzkin eta gomendioak.

Udaleko eta haren menpeko erakunde autonomoetako langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

IV. IRITZIA

2004ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiari dagozkion Iruñeko Udalaren finantzen egoera-orriak aztertu ditugu, zeinak udalaren ardurapean egin baitira.

Egindako berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzia agertuko dugu:

IV.1. 2004ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIO-ARI DAGOKIONEZ

Erantsi dugun 2004ko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orriak eta oharrek behar bezala agertzen dituzte, garrantzizkoak diren alderdi guztiei dagokienez, 2004ko abenduaren 31n beterik zeuden gastuak eta dirusarrerak.

IV.2. 2004ko ABENDUAREN 31ko ONDARE-EGOERAREN AGERPENA

Erantsirik dagoen 2004ko abenduaren 31ko egoera balantzeak eta oharrek behar bezala agertzen dute udalaren finantza- eta ondare-egoera; salbuespen bakarra da ez direla zenbatetsi udal montepioari atxikitako funtzionarioen pentsio-eredu indardunen ondoriozko betebeharrak aktuarialak.

IV.3. LEGEZKOTASUNA

Oro har, udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezketasun-printzipioari jarraituz egin da.

IV.4. 2004KO ABENDUAREN 31KO EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA

Hasierako aurrekontu bateratua 227 milioi eurokoa da. Gastuen behin betikoa, berriz, 274,4 milioi eurokoa, eta dirusarrerena 277,7koa. Alde hori 2003ko abenduaren 31ko diruzaintzako gerakin negatiboa finantzatzeko beharretik heldu da.

Egindako gastu bateratuak 181,7 milioi euro egiten du, horrek esan nahi du ehuneko 5eko jaitziera orokorra izan dela 2003ko likidazio bateratu-

arekiko. Dirusarreraren guztizko zenbateko bateratua 185,5 milioi eurokoa izan da, aurreko ekitaldian baino ehuneko 8 gehiago.

Dirusarrerek 185,5 milioi euro egiten dute, eta horien betetze maila ehuneko 67koa da; ehuneko hori 73ra igotzen da baldin eta aintzat hartzen bada diruzaintzako gerakina gehitzearen eragina (diruzaintzako gerakina ez da horrenbestez zenbateko likidatu bihurtzen); gastuek 181,8 milioi euro egiten dute, eta horien betetze maila ehuneko 66koa da.

Aurrekontu bateratuan, zenbateko handiena duen kapitulu ekonomikoa langileena da, 67 milioi eurokoa, eta betetako guztiaren ehuneko 37 egiten du; ondotik dator ondasunak erostearena, 51,1 milioi euroko gastuarekin, eta betetakoaren ehuneko 28 egiten du; halatan inbertsioen kapituluaren gainetik dago, inbertsioek ehuneko 23,8 egiten baitute. Dirusarreraren kapituluetan transferentzia arruntena nabarmentzen da, 64,8 milioi euroko zenbatekoa duelako, hau da, aitorturiko eskubide guztien ehuneko 37; zuzeneko zergek, guztira, 39,7 milioi egiten dute, hau da, dirusarreraren ehuneko 21. Dirusarrera arrunten kapituluaren betetzearen ehunekoak ehuneko ehunera iristen dira, eta zenbait kapitulu horren gainetik daude.

Ekitaldi honetan, bete egin da bideragarritasun finantzarioaren plana; horrela, finantza-zama eta funtzionamendu gastuak dirusarrera arrunten bidez finantzatu dira, eta inbertsioak finantzatzeko soberakina ere badago.

Kontu bateratuetatik datozen adierazle nagusiak hauexek dira:

	2004	2003	2002
Aurrekontu-emitza doitua	3,3	-2,8	-1,2
Zorpetze-maila	% 2,13	% 5,35	% 2,37
Zorpetze-muga	% 8,51	% 10,07	% 13,72
Aurrezpen garbia	% 6,37	% 4,72	% 11,35
Diruzaintza-gerakina, orotara	48	45,5	72,3
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	3,2	-2,1	5

Honako hau izan da azken urte hauetako zor biziaren bilakaera:

Urtea	Zorra (euroak, milioitan)
2001	41,2
2002	39,2
2003	32,9
2004	50,9

Igoera hori 20 milioiko kredituak (ken ekitaldiko zorreko amortizazioak, salbu eta Nafarroako Gobernuaren urteko aurrerakina -2,1 milioi-, 2005eko ekitaldiari egotzi zaiona) kontratatzetik heldu da.

IV.5. INFORMAZIO OSAGARRIA ETA AZALPEN OHARRAK

Finantzen egoera-orrien informazio osagarrian eta azalpen oharretan behar adina informazio dago haiek ongi interpretatu eta ulertzeko.

IV.6. COMPTOS GANBERAREN AURREKO TXOSTENEN GOMENDIOEN JARRAIPENA

Oro har, esan daiteke Iruñeko Udalak pixkanaka praktikan jartzen dituela Comptos Ganberak bere txostenetan eginiko gomendioak. Halere, txosten honetan udalaren jardura hobetzeko zenbait gomendio jasotzen dira, eta horietako batzuk ezartzen ari da udala.

IV.7. LABURPENA ETA ONDORIO NAGUSIA

Laburbilduz, ondorio orokor gisa esan dezakegu Iruñeko Udalak:

- Egoki kudeatzen dituela bere aurrekontuak administrazioaren ikuspegitik, baina hobetu beharreko zenbait alderdi jasotzen dira txostenean, batez ere inbertsioen alorrean.

- Inbertsioen kapituluak aurrekontuaren ehuneko 63 hartzen badu ere, inbertsioen betetze maila baxua da, ehuneko 35era baizik ez baita iristen.

- Finantza egoeraren ezaugarriak hauexek ziren: ehuneko 2,13ko zorpetze maila, ehuneko 6,37ko aurrezki garbia eta 3,2 milioi euroko diruzaintzako gerakina.

Aurrekontuen kontrola eta kudeaketa hobetzen jarraitzeko, ondoko gomendioak egiten dizkiogu udalari:

- *Aurrekontu-eredua aldatzeko prozesuarekin aurrera jarraitzea, jardueraren helburuak eta adierazleak sartuz eta kudeaketan lortutako eraginkortasun, efizientzia eta ekonomia maila neurtu eta aztertzeko prozedurak ezarriz. Udal jardueraren helburuak lortzearen inguruko datuak eta informazioa sartzea oroitidazkian.*

- *Kontabilitatea kudeatzen duen informatika-aplikazioa hobetzeko prozesuaren barruan, hura aldatzea kudeaketarako tresna erabilgarri bat lortze aldera, batez ere honako arloetan: inbertsioen jarraipena, bateratzea eta kontsultak.*

- *Postu eta unitate organikoen eskumenak definitu eta zehaztea, honakoa lortzeko:*

- Prozedura eskuliburuak egin eta gaurkotzen laguntzeko.*

- Alorretako oroit-idazkien edukia definitzeko.*

- Administrazio espedienteen kudeaketa, edukia eta dokumentazioa zehazteko.*

- Kudeaketaren balorazioa egiteko alor guztietan, ezarritako helburuen eta adierazleen programak azterketetan oinarriturik.*

- *Udalaren menpe dauden organismo eta entitateen kontrolean kontu-hartzaileak bete behar duen eginkizuna definitu eta zehazteko, bai erregulartasunaren ikuspegitik bai eginkizun hori eraginkortasun, ekonomia eta efizientziaren arloko gaietarako zabaltzeko aukerarenetik.*

- *Kontu-hartzailearen "a posteriori" lan erabaketeoaren edukia eta norainokoa ezarri behar dira, eraginkorra izan dadin eta epean gauzatu dadin.*

- *Aurrekontuak haiek betetzeko aukerei egokitztea.*

- *Banku-kontuen funtsak baterako sinaduraz baliatuz xedatzea.*

- *Europar Batasuneko funtsen bidez kofinantzatutako inbertsioen exekuzio-prozesua azkartzea, finantzazio hori galtzeko arriskua baitago.*

- *Aztertzea ea udalaren antolakuntza-egiturak eta plantilla organikoak udalaren kudeaketaren egungo beharrezan erantzuten dieten.*

IV.8. ONDOKO GERTAKARIAK

Azaroaren 9an, Nafarroako Auzitegi Nagusiak epaia betearazteko intzidenteari buruzko auto bat eman du, zeinaren bidez agintzen baitio udalari aurreko epai bat bete dezan eta Gaztelu Plazako aparkalekuaren kontratua likidatzeari ekin diezai-on.

Alegia, auto horren bidez, auzitegiak dio udala, kontzesio epea 75 urtetik 50 urtera jaisteko erabakiaren hartzean, ez dela ari behar bezala betetzen Gazteluko Plazako aparkalekuari buruzko 2004ko azaroaren 12ko epaia, baliogabetutako egintza baliokotu nahi baitu. Hori dela eta, agintzen dio, epaia behar bezala betearazteko, adjudikazio-hartzailearekin duen kontratua likida dezala, Kontratu-ei buruzko Foru Legeko 157. artikuluan xedatuarekin bat.

Udalak erregu-errekurtsua aurkeztu dio auzitegiko sala horri, eta txosten hau egiteko unean ebatzi gabe dago.

V. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Atal honetan, udalaren kudeaketari dagozkion gai batzuei buruzko zenbait iruzkin eta gomendio adieraziko ditugu, aurreko epigrafeko iritzia osatzen dutenak.

V.1. LANGILERIA

Udalak 67 milioi euroko gastu bateratua du, hau da, aurreko ekitaldian baino ehuneko 0,85 gehiago. Langileen gastuak ehuneko 37 egiten du udalaren aurrekontu osoan, eta gastu hori, enplegatuak eta pentsiodunak kontuan hartuta, 2.599 pertsonari ordaintzeko erabiltzen da urtean batez beste (ikus oroitidazkiko 2. eranskina); aurreko ekitaldian, berriz, 2.673 pertsonari. Kopurua apur bat jaitsi da aurreko urtetik hona, nagusiki, lanbide tailerretako eta udal ikastoletako 72 irakasleren lanpostuen amortizazioaren ondorioz, Nafarroako Gobernuako langile direlako 2003ko azken hiruhilekotik aitzina.

Honela osatzen da plantilla organikoa:

Maila	Beteak	Lanpostu hutsak erreserbarekin	Lanpostu hutsak	Lanpostuak, guztira	Mailaren %/ lanpostu guzt.
A	55	22	27	104	7
B	108	18	49	175	12
C	505	40	112	657	45
D	181	24	250	455	31
E	0	12	16	28	2
-	6	0	0	6	0
<i>Funtz. eta kontrat., guztira</i>	<i>855</i>	<i>116</i>	<i>454</i>	<i>1.425</i>	
Izendapen librea	35	--	--	35	3
Guztira	890	116	454	1.460	100
	% 61	% 8	% 31		

Mailarik gabeko sei lanpostuak Gizarte Zerbitzuen eta Emakumearen alorreko lanpostu finko jarraigabeenak dira, aldeko epaia dagoela orduko hainbat kobra dezaaten.

2004ko urtarrilaren 1eko plantilla eta 2003ko urtarrilaren 1ekoa alderatuz gero, 36 lanpostu gutxiago dituela ikus daiteke. Halere, adierazi beharra dago berez plantilla handitu egin dela, arestian aipatutako 72 lanpostuen amortizazioa aintzat hartzen badugu.

2004ko plantilla organikoko funtzionario eta lan-kontratudunen lanpostuak ondoko alorretara daude atxikirik:

Alorra	2004ko plantilla organikoa, guztira	Ehuneko % %, guztiaren gainekoa
10 Alkatetza Kabinetea	1	0
20 Ekonomia	72	5
21 Lehendakaritza	106	7,5
22 Hiritarren Partaidetza	13	1
30 Hirigintza eta Etxebizitza	50	3,5
40 Ingurugiro eta osasuna	105	7,5
41 Hiri-kontserbazioa	194	14
50 Kultura	45	3
60 Hiritar Babesa	29	2
70 Gizarte Zerbitzuak eta Emakumea	145	10
71 Hezkuntza, Gazteria eta Kirola	177	13
80 Merkataritza eta Turismoa	3	0
91 Proiektu Estrategikoak eta Obrak	23	1,5
Udaltzaingoa	462	32
Guztira	1.425	100

Udaltzaingoaren plantillaren egoera aztertu dugu, kidego horrek plantillaren ehuneko 32 egiten baitu. Kontuan hartu behar da lanpostu bat egunero-egunero hogeita lau orduz betetzeko sei pertsona behar direla gutxi gorabehera.

Hauexek dira ondorioak:

- 344 lanpostu daude beteta. Hona haien banaketa:

Langileen adina	Pertsona-kopurua
< 30	26
30-40	150
40-50	131
50-55	20
55-60	12
>60	5
Guztira	344

Lehendakaritza Alorrek emandako datuen arabera esan daiteke langile bakoitzaren batez besteko kostua 38.000 eurokoa dela.

Nafarroako polizia kidegoei buruzko Foru Legearen testu bateratua onesten duena urriaren 14ko 213/2002 Legegintzako Foru Dekretuak ondokoa dio:

“Erregelamenduz ezarriko da zein kasutan igaroko diren langileak bigarren jarduerarako gorderiko lanpostuak betetzera, lan mota bakoitzaren gehieneko adinera ailegatzeagatik edo ezgaitasun partziala dela-eta. Plantilla organikoetan adierazi beharko dira bigarren jarduerako multzoan sartu ahal izanen diren lanpostuak, eskatzen duten ahalegin fisiko, arrisku edo zailtasun txikiagoan oinarriturik”

Ondorioz, Hiritarren Babesaren zerbitzuak udal plantillako hiru lanpostuetarik bat hartzen du; eta horien berezitasuna da bigarren jarduera bat egiteko aukera izan behar dutela; kontuan izanda plantillakoen adina, hurrengo urteotan asko igoko da bigarren jarduera horien kopurua.

2004ko lan eskaintza publikoa dela-eta eginikoa honela laburbiltzen da: hasiera batez aurreikusitako 186 lanpostuetarik ehuneko 28ren deialdia egin da, eta horietarik ehuneko 96ren aurkako errekurtsioa aurkeztu da. Bi lanpostu soilik daude abian.

Egoera	Tokiak	Guztiaren %
Abian	2	1
Errekurrituta	50	27
Deialdia egiteke	134	72
2004ko lan eskaintza publikoa	186	100

2001-2004 aldiko lan eskaintza publikoa azterzen badugu, egoera ondoko taulan ageri dena da:

Egoera	2001	2002	2003	2004	Guztira	Guztiaren %
Baliogabetua	1				1	
Abian				2	2	
2003ko lan eskaintza publikora	10	1			11	2
2004ko lan eskaintza publikora	40	1			41	9
Egiteke dagoen sustapena			1		1	
Errekurritua	45	3	20	50	118	25
Ebatzia	34	36	30		100	21
Sustapen ebatzia			46		46	10
Deialdia egiteke	13	1		134	148	32
Guztira, 2001-2004	143	42	97	186	468	

2001-2004 aldiko lan eskaintza publikoetarik deitu beharreko lanpostuak 468 dira guztira; eskaintzari handiena 2004koa da (186), alegia, aldi horretan deialdian sartu beharreko lanpostuen ehuneko 40; ondotik dator 2001ekoa: 143 lanpostu (ehuneko 31). Ondokoa nabarmendu behar da:

- Lanpostuen ehuneko 31 baizik ez dute egiten deialdia ebatzirik dutenak, eta barne sustapenekokak dira horietako ehuneko 10. Deialdi libretearik heldu diren 100 lanpostu ebatzietarik 99k Udaltzaingoan dute destinoa.

- Lanpostuen ehuneko 25 daude errekurrituta.

- Deitu gabeko lanpostuak 148 dira (ehuneko 32), eta 2004ko lan eskaintza publikotik heldu dira batez ere.

Horra lanetik ateratako gomendioak:

- *Aztertzea ea udalaren antolakuntza-egiturak eta plantilla organikoak udalaren kudeaketaren egungo beharizanei erantzuten dieten.*

- *Zerikusia duten sektore guztiek aztertu behar dute zergatik aurkatzen diren lanpostuen deialdi guztiak, horrek arazoak sortzen dituelako bai udal antolamenduan bertan bai izangaiantzat, eta pentsatu zer aukera dauden aurkatze horiek gertatzea galarazteko.*

- *Hiritarren Babesaren zerbitzuaren beharizanei eta lan baldintzen betetzeari erantzuteko udalak dituen aukerak aztertzea*

- *Eskuliburu batean formalizatzea langileen alorreko prozeduren deskripzioa, nomina kudeatzeko aplikazio informatikoari dagokionari bereziki erreparatuz.*

- *Kontu-hartzaitzaren fiskalizazio eginkizuna betetzea langileen arloan.*

- *Oroitidazkia egiteko erabilitako langileei buruzko datuak berrikustea, argi eta garbi zehazteko zein diren sartu beharreko langileak, kontuan harturik eszendentzia egoerak, suhiltzaileen partzuergoko langileak etab. Informazioa osatzea, ekitaldiko plantillaren bilakaerari buruzko datuak erabilita.*

- *Langileen espedienteak osatzea.*

- *Ezartzea irizpide zehatz eta homogeenak bitarteko izaerako lanpostuetan aritzen diren pertsonen izendapenerako eta ordainketarako.*

- *Kilometrajea kasuan kasuko zirkularrean ezarritako moduan eta garaiz justifikatu behar da, batez ere ekitaldia ixtearen kariatara.*

- *“Ogasun publikoa, PFEZaren hartzekodun” kontuaren saldoak, aurreko urteetakoak, erregularizatzea, eta “Funtzionarioen osasun laguntza” kontuaren saldoak aztertu eta, kasua bada, erregularizatzea.*

- *PFEZa dela-eta ekitaldian eginiko atxikipen guztiak “Atxikipenak eta konturako ordainketak” 190 inprimakian sartzea aztertzea.*

V.2. KONTRATAZIOA (EROSKETAK ETA INBERTSIOAK)

Udalan, ondasun eta zerbitzuak erostean kapituluan dagoen betetze maila 55,2 milioi eurokoa da, aurreko urtean baino ehuneko 3,85 gehiago. Kapitulu horretako gastuaren ehuneko 72 22. artikuluan jasotzen da, han kontabilizatzen baitira kanpo kontratazioak, hornikuntza eta abar. Ehuneko 2 igo da aurreko urtearekin alderatuta.

Hona aztertutako erosketen kapituluko espedienteen betetzea:

	Zenbatekoa (eurotan)
Eraikinen mantentzea	1.020.075
Argiteria publikoaren kontsumoa	1.408.867
Argiteria publikoaren kontratua	1.679.597
Ibilgailuak eramatea	1.197.698
Beste kalte-ordain batzuk	201.817
Guztira	5.508.054

Aurrekontu-betetzeak ez du jasotzen 304.900 euroko gastu bat, hornitzaileak urtarrilean aurkeztu zuen 86.456 euroko faktura batetik eta 218.444 euroko abenduko batetik heldu dena; izan ere, aurrekontu-saldoa 141.132 eurokoa zenez, ezin izan zitzaion horri aurre egin.

Udalan, inbertsioen kapituluan dagoen betetze maila 43,2 milioi eurokoa da, aurreko urtean baino ehuneko 18 gutxiago. Hasierako aurrekontua 82,3 milioiokoa zen, eta behin betikoa, berriz, 124koa. Horrek esan nahi du aurrekontua erdia baino gehiago igo dela eta ekitaldian zehar ez dela hasiera batean aurreikusitakoa ere bete.

Kontu-hartzailetzak kontu orokorrari buruz eginitako txostenean, udalaren ez beste inoren datuez ari dela, agerian gelditu da inbertsioen aurrekontuzenbategoen bilakaera, ondoko taulan ageri dena:

	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005
Hasierako kreditua	19,63	21,92	34,99	36,70	53,10	47,08	72,07	73,26
+ gerakinen gorab.	7,38	17,08	16,62	14,61	21,71	19,44	21,09	
+ beste aldaketa batzuk	6,26	6,53	5,65	14,55	6,77	6,23	-1,08	
Behin betiko kreditua	33,27	45,53	57,26	65,86	81,58	72,75	92,08	
Betetakoa	15,18	23,66	28,81	34,53	37,56	35,88	36	
Ebazteke	18,09	21,87	28,45	31,33	44,02	36,87	56,08	

Datu horien azterketak inbertsioen bilakaeraren ideia garbia ematen digu; halatan, egindako inbertsioek, azken sei urteotan, bider 2,37 egin dute, baina betetzeke dagoenak bider 3,10. Alegia, udalak urtebetean bete dezakeena baino gehiago jasotzen da aurrekontuan.

Hona hemen aztertutako inbertsio batzuen zehaztapena (inbertsio horiek 2004ko ekitaldian zehar aitorturiko betebeharen ehuneko 47 egiten dute):

Kontratua	Adjudikazioa	Adjudikazioaren data	Epea	Adjudikatze modua	2004an betetakoa
Apartamentu babestuak, Iturrama	3.498,0	07/11/2002	480 egun	lehiaketa	2.826,3
Arrotxapeako haur eskola	1.688,3	11/04/2002	375 egun	lehiaketa	201,2
Iturramako gizarte etxea	4.980,3	06/10/2003	480 egun	lehiaketa	1.046,9
Sanduzelaiko gizarte etxea	3.336,6	01/08/2002	460 egun	lehiaketa	2.033,3
Patxi Larrainzar IPko estalkia eta pista	379,6	31/12/2003	154 egun	lehiaketa	359,2
Aranzadiko eraikin soziala eta rokodromoa	3.267,6	22/07/2003	417 egun	lehiaketa	2.658,8
Urban II proiekt. - Kondestablearen Jauregia (adjudikazioa)	8.428,1	16/12/2004	20 hilabete	lehiaketa	--
Ibaiak leheneratzea, I. fasea (Biritxitu, Madalenako meandrea)	1.285,2	15/09/2004	90 egun	lehiaketa	--
A.Z. berrurbanizatzea, 2. fasea (Dormitaleria)	6.146,8	06/11/2003	9 hilabete	lehiaketa	3.121,8
Etxebizitzak eta zaharberritzea (Gerentzia)	1.849,9				1.849,9
Aztertutakoa, guztira					14.097,5
Aitorturiko betebeharrak 2004					29.934,2

Egindako azterketatik ondorioztatzen da ezen, oro har, kudeaketa egokia dela, nahiz eta arazoak egon epeen kontrolean; horren ondorioz, betetze maila txikia izan ohi da eta zailtasunak sor daitezke kanpoko finantzazioa lortzeko, bai eta alderdi formaletako akatsak ere.

Hona lanetik ateratako iruzkinak eta gomendioak:

- *Obrak egiteko epeak gehiago kontrolatzea; izan ere, atzeratu egin dira zenbait obra, zenbait kasutan aurreikusitako epea ehuneko ehun atzeratu ere. Zorroztasun hori areagotu egin beharra dago Europar Batasuna finantzakide den obren kasuan; izan ere, kasu horietan obra epean bukatu beharra dago dirulaguntza jasoko bada.*

- *Aurrekontuak haiek betetzeko aukerei egokitztea.*

- *Zorrotzago betetzea administrazio tramiteak, proiektuaren zuinketa lizitazioaren aurretik egitea kasu; proiektua gainbegiratu izana jasota uztea; araudiari jarraikiz jaso beharreko txosten guztiak jasotzea; identifikatzeko datu nagusiak jasotzea kontratuan; modu zentralizatuan erregistratu eta gordetzea fidantzak; kontratuan jasotzea fidantza eta haren zenbatekoa gordailutu izana; kontratazio mahaiaren aktetan islatzea egin diren jarduketazehatzak, bai dokumentazio teknikoari bai dokumentazio ekonomikoari buruzkoak.*

- *Kontratuaren erregistro bat ezartzea, udalak zer kontratu egin dituen jakin ahal izateko eta beste entitate batzuekin kontratuak egiteari buruzko informazio arloko betebeharrak betetzen laguntzeko.*

- *Lizitazioetan preziorik baxuenaren arabera egitea balioespen ekonomikoa, eta ez, zenbait kasutan egiten den legez, batez besteko eskaintzaren arabera. Dokumentazio teknikoa jendaurreko ekitaldi batean ireki behar da. Alderdi horiek Kontu-hartzaileak adierazi izan ditu zenbait espedientetan.*

- *Adjudikazioa bukatutakoan, kontratuaren formalizazioak zorroztasun handiagoarekin bildu beharko lituzke ondokoak: sinatzen duten pertsonak zer eskumen edo ahalmen duten, eta oinarrizko alderdi batzuk, hala nola xedea, ordainketen araubidea, behin betiko bermea, prezioak berraztertze indizea eta abar, nahiz eta azken horiek pleguan jasota egon.*

- *Fidantzak eta abalak ezarri eta haien jarraipena eta kontrola egiteko ezarritakoa aplikatzea, halako moduan non kasu guztietan irizpide berdinak aplika daitezzen zenbatekoak, urte anitzeko kontratuaren kasuan, gaurkotzeak eta gordailua*

ezartzeko. Era berean, fidantzen eta abalen erregistroa ezarri behar da.

- *Izenpetu ondoren bete edo kontrolatu beharreko kontratuaren gaineko jarraipen eta kontrolerako sistema bat ezartzea, kontrolaren ardura duen unitatea edo pertsona zein den adieraziz.*

- *Kreditua duen gastu guztia aurrekontuan kontabilizatzeko aukera aztertzea.*

V.3. UDAL ERAIKINAK

Udalak erabiltzen dituen administrazio eraikinak aztertu ditugu, duten izaeragatik gure ustez mugiezinak direnak (auzo unitateak, apartamentu babestuak...) albo batera utzita.

Udalak 18 lokal erabiltzen ditu, Iratxeko Monasterioa kaleko hirurak bakar bat balira bezala hartzen baditugu.

Horra:

Tokikoa	Azalera (m ²)
Iratxeko Monasterioa	7.176
Udaletxeko plaza	4.577
Santo Domingo, 11	2.851
Armadaren etorbidea	2.829
Marcelo Celayeta	2.362
Descalzos	2.029
Zapateria	1.816
Maiteminduen pasealekua	1.608
Honaino, guztira	25.328
Gainerakoak	3.460
Guztira	28.698

Gainerako eraikinak 85 metrotik 976 metrorainokoak dira.

Eraikin kopuru horrek alorren arteko sakabanaketa dakar. Halatan, bost alorrek eraikin bakarra erabiltzen dute; lauk –Ekonomia, Hezkuntza, Ingarugiroa, Hiritarren parte-hartzea– bi erabiltzen dituzte; Hirigintza lau eraikinetan sakabanatuta dago, gizarte zerbitzuak zortzitan, eta, Lehendakaritza, berriz, bederatzitan.

Egiaztatu ahal izan ditugun gastuetan ikusten da sakabanaketa handia dagoela eraikinetako m²-ko gastuetan. Zuzenean egotzi beharreko gastuak gorabehera, adierazi beharra dago sakabanaketak kudeaketa arazoak sortzen dituela, ekonomiaren ikuspuntutik ebaluatzeko zailak direnak.

Bestalde, komeniko litzateke aztertzea ea Udaletxe plazako eraikina egokituta dagoen zerbitzu

publikoak emateko, gaur egungo beharrianak kontuan hartuta.

Gure gomendioa da azter dadila zer aukera dagoen administrazio eraikinen erabileran egun dagoen sakabanaketa dela-eta, udal kudeaketa hobetu eta errazte aldera.

V.4. TRANSFERENTZIAK

Gure gomendioa da dirulaguntzak emateko deialdi publikoa denbora nahikorekin egin dadila, egon litezkeen interesdun guztiek aurkezteko aukera izan dezaten eta tramitazioa modu egokian egin ahal izan dadin.

V.5. PASIBO FINANTZARIOAK

2004ko ekitaldian ez da amortizazio gastu gisa kontabilizatu 2.103.542 euroko zenbateko bat, Nafarroako Gobernuak emandako aurrerakin baten urte sari bati dagokiona.

Oroitidazkian adierazten denez, udalaren aurrekontua itxitakoan, urtarrean, banaketa-kontuan kargatu zen operazioa, abenduaren 30eko datarekin kargatu ere; hortaz, aurrekontu-egozpena 2005erako gelditu zen, aurrekontu-aldaketa egin eta gero. Horrenbestez, 2004ko ekitaldia ixtean, data horretako egiazko zorra baino 2.103.542 euro handiagoa zen Nafarroako Gobernuarekiko zorra.

V.6. DIRUSARRERAK

Hauexek dira dirusarreraren aurrekontu bateratuaren xehetasunak --euro milakotan--:

Tributu bidezkoak	67
Transferentziak	86,5
Bestelakoa	32
Guztira	185,5

Horra lanetik ateratako gomendioak:

- *Dirusarrerei dagokienez kontu-hartzaitzak egin beharreko fiskalizazioaren eredia ezartzea.*

- *Beste entitate batzuek –Nafarroako Gobernuak eta, batez ere, Europar Batasunak– finantzatutako inbertsioen kudeaketa azkartzea. Halatan, 2004an, Europar Batasunetik 8,1 milioi euroko dirusarrerak heltzea aurreikusten zen, eta horietarik, aitortutako eskubideek 1,2 milioi egiten zuten, eta ekitaldian ez zen ezer ere kobratu.*

- *Inbertsioak besterentzetik aurreikusten diren dirusarrerak ekitaldian egiten saiatzea; xedea da Buztintxuri eta Ezkabako lursailen enkantea atzeratzeagatik, batez ere, aurreikuspenak ehuneko 27 soilik betetzea ekiditea, lursail horiek 2005eko irailan adjudikatu baitira.*

- *Udal alorren eta kontabilitate departamentuaren arteko komunikazioa edo informazio trukea hobetzea, udalari emaniko transferentzia guztiak egoki erregistra daitezzen.*

- *Kobratzeke dauden isunen saldoei buruzko informazioa sartzea oroitidazkian; izan ere, kutxa-ko irizpideari jarraikiz kontabilizatzen dira.*

- *Kobrantez datuak eta jardueren oroitidazkietan jasotakoak berdinkatzea, esate baterako Aranzadiko kirol instalazioetan.*

V.7. INFORMAZIO OSAGARRIA ETA AZALPEN OHARRAK

Informazio osagarrian eta azalpen oharretan aski informazio dago udalaren kudeaketa ongi ulertzeko. Nolanahi ere, informazio hori are gehiago osatu eta hobetze aldera, hauexek dira gure gomendioak:

Udalaren jardueratik heldu diren gorabeheren egoerari buruzko informazioa osatzea.

V.8. GORABEHERAK

Iruñeko Udalak emandako informazioari jarraikiz, ondoko taulan agertzen dira zer errekurtsio dauden eta zeri buruzkoak diren:

Urtea	Errekurtso kopurua	Trafikoa	Sakelako telefonoa	Langileria	Gazteluko plaza	Kalteak	Ezkaba mugatzea	Trinitariosko plan berezia
1998	6	3						
1999	2			1			1	
2000	5	3						
2001	5		4					
2002	3	1	1					
2003	9	2		1	2	1		
2004	12	2				2		1
2005	57	8	2	9		9		

Ezin da zenbatetsi errekurtsu horietatik hel daitekeen arrisku ekonomikoa.

V.9. UDALAREN MENPEKO ERAKUNDEAK

Udalaren menpeko entitateak erakunde autonomoak dira: haur eskolak eta hirigintza gerentzia; merkataritza sozietateak: Animsa, Mercairuña, Comiruña eta Pamplona Centro Histórico; eta fundazioak: Erruki Etxea eta Gaiarre. Udalak badu Oficina de Congresos de Pamplona Convention Bureau, S.A enpresaren ehuneko 30 ere.

Merkataritzako sozietateen gaineko auditoriak, salbu eta Oficina de Congresos de Pamplona Convention Bureau, S.A.renak, profesional independenteek egiten dituzte; kasu guztietan iritzia aldekoa izan da.

Erakunde autonomoen kasuan, Hirigintza Gerentziaren kasuan ere aldeko iritzia eman da, salbuespen bat eta azpimarratu beharreko bi lerrokada kenduta. Lerrokada horietan udalak bere gain hartu beharreko balizko gastuak azaltzen dira; batean, ez dago zer arrisku dagoen jakiterik, eta bestean, auditoriaren arabera, arriskua 1.283.313 eurokoa izan daiteke.

Salbuespena ondasun atxikien baliospenari buruzkoa eta amortizazioetan duen eraginari buruzkoa da.

Auditoriaren iritzia aldekoa da haur eskolen kontuei dagokienez.

Fundazioen kasuan, Erruki Etxeari buruzko kanpo auditoriaren iritzia aldekoa da, salbuespen batekin, alegia zergen arloko zalantza bat; kudea-

keta txostenean –Erruki Etxeari buruzko auditorian sartu da– jotzen da 900.000 eurokoa izan daitekeela dirusarreraren jaitsiera, Yanguas y Miranda orubea ez erabiltzearen ondorioz (barrakak eta aparkalekua).

Gaiarre Antzokia Fundazioari buruzko auditoriak aldeko iritzia eman du.

Hona gure lanaren ondorioz egiten ditugun gomendioak:

- *“Oficina de Congresos de Pamplona Convention Bureau, S.A.” Sozietateari buruzko auditoria egitea, eta haren kapitalaren gehiengoa publikoak denez gero, zehaztea zer administraziok sartuko duen bere kontuei buruzko informazioan sozietate horri buruzkoa.*

- *Aintzat hartzea Erruki Etxearen nahiz Udalaren kontuetan Yanguas y Miranda kaleko orubea ez erabiltzeak izan dezakeen eragina.*

- *Kontuan izatea Hirigintza Gerentziatik heldu litezkeen gorabeherak udalaren kontuetan izan dezaketen eragina. Bata ezin da balioetsi, eta bestea, berriz, 1.283.313 eurokoa da.*

- *Berriz gomendatzen dugu Hirigintza Gerentziako hirigintza poligonoetako kontuak itxi eta likidatzea.*

Txosten hau auditore Jesús Muruzabal Lerga jaunak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, araudi indardunak ezarritako tramiteak bete ondoren.

Iruñean, 2005eko abenduaren 27an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

IRUÑEKO UDALAREN BEHIN-BEHINEKO FISKALIZAZIO TXOSTENARI IRUÑEKO ALKATEAK EGINDAKO IRUZKINAK

Iruñeko Udalaren 2004ko ekitaldiko behin-behineko fiskalizazio txostena aztertu dut, eta lehenengo eta behin adierazi nahi dizut ezen udalaren kudeaketa egokiari buruzko ondorioa neurri handi batean zor zaiela, inondik ere, Comptos Ganberak azken urteotan egin dituen ekarpenei, balio handikoak izan baitira Iruñeko Udalaren kudeaketa hobetzeko prozesuan.

Ikusi ahal izan duzueenez, Iruñeko Udalak abian jarri ditu edo abian jartzen ari da Comptos Ganberak azken urteotan egindako gomendiorik gehienak. Ziur naiz neurri horien aplikazioak udalaren baliabideen kudeaketa eta herritarrei emandako zerbitzua hobetzea ekarriko duela; udalaren jarduerari buruz etorkizunean egiten diren txostenek hori islatuko dutelakoan nago.

Ganberak inbertsioen azterketan jarri du arreta berezia aurtan, inbertsioen bolumena asko igo baita azken urteotan. Txostenak berak dioenez, 15,18 milioi euroko inbertsioak egitetik 36 milioi euroko inbertsioak igaro gara azken sei urteotan; alegia, bider 2,37 egin dute. Aztertu den 2004ko ekitaldian, zehazki, 134 milioi eurotik goitiko inbertsioak jaso zituen aurrekontuak, eta % 64 adjudikatutako proiektuei zegokien.

Udalak interes bereziarekin ikusten du Europar Batasuna finantzakide den inbertsioak betetzeko prozesua dela-eta Comptos Ganberak azaldu duen kezka. Neuk ere kezka bera dut, eta horregatik hain zuzen ere eman dira eman beharreko pausoak hitzartutako finantzazioa bermatze aldera Europako araudiak berak ezartzen dituen tresnen bidez, hala nola obren exekuzioan geroratzeak onartzea, diruz laguntzekoak diren jarduketak aldatzea edo epeak luzatzea...

Bestalde, Udalaren espediente guztien kudeaketa hobetze aldera, Udal Gerentzia abian jartzen ari da beharrezkoak diren prozedurak auzi hori zorrotzasunik handienarekin ezartzeko.

Azkenik, adierazi beharra daukat ezen, txostena irakurri ondoren, 2004ko kontuak eskatu zaizkion Convention Bureau, S.A.ri –udala da akzioen % 30en jabe–. Egiatzatu dugunez, kontu horiek ikuskaturik daude eta udalaren kontuen osagarri gisa igortzen dira betiere.

Bukatzeko, egindako ekarpen guztiak eskertu nahi dizkizut, ekarpen horiek udalaren antolakuntza, barne kontrola, eragingarritasuna eta efizientzia hobetzeko lagungarri izanen baitira.

Agur.

Alkatea: Yolanda Barcina Angulo

Berriozarko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Berriozarko Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Berriozarko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

I. Sarrera (17. or.).

II. Helburua (17. or.).

III. Norainokoa (18. or.).

IV. Iritzia (18. or.).

IV.1. 2004ko aurrekontu bateratuaren lidakzioari dagokionez (18. or.).

IV.2. 2004ko abenduaren 31ko ondare-egoe-raren agerpena (18. or.).

IV.3. Legezketasuna (18. or.).

IV.4. 2004ko abenduaren 31ko finantza-egoe-ra (18. or.).

IV.5. Informazio osagarria eta azalpen oharrak (18. or.).

IV.6. Gomendioen jarraipena (18. or.).

IV.7. Ondorio orokorra (19. or.).

V. Iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (19. or.).

V.1 Administrazio-kontratazioa (19. or.).

V.2 Kudeaketari buruzko bestelako gomendioak (19. or.).

Eranskina: 2004ko abenduaren 31ko finantzen egoera-orri bateratuak.

(Oharra: aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Legebiltzarreko Zerbitzu

Orokorretako bulegoetan eta ondoko webgunean:
www.cfnavarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

Berriozarko Udalak 8.314 biztanle ditu eta hauek dira bertako zifra adierazgarrienak 2004ko abenduaren 31n:

Entitatea	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko eskubideak	Langileak, 2004an
Udala	5.622.633	6.559.364	65

Udalak ondoko mankomunitateetan hartzen du parte:

Iruñerriko Mankomunitatean, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri hondakin solidoen kudeaketa eta tratamenduak eta eskualdeko hiri garraioak.

Antsoain, Berriozar eta Berriobeitiko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean. Horren bidez ematen dituzten zerbitzuak dira etxez etxeko laguntza, droga-menpekotasun-programa eta abegi eta gizarte-orientazioa.

II. HELBURUA

Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, fiskalizatu egin ditugu bai Berriozarko Udaleko kudeaketa ekonomiko-finantzarioa bai udal horren 2004ko ekitaldiko gastu eta dirusarreraren aurrekontuen exekuzioa.

Fiskalizaturiko toki-entitateari aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute: arestian aipatutakoak eta Toki araubidearen oinarriak arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutua, hirigintza-kudeaketa eta administrazio-kontratazioa arautzen duen araudia

eta Nafarroako toki entitateei aplikatzekoa den gaitzetzeko araudia.

Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira, zeinak aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta Nafarroako toki administrazioarako kontabilitateari buruzkoak baitira.

Txostenaren helburua da honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea:

a) Berriozarko Udalaren 2004ko ekitaldiko aurrekontuaren garapena eta betetzea.

b) 2004ko abenduaren 31ko ondare-egoeraren agerpena, aplikatzekoak diren kontabilitate-printzipioei jarraituz.

c) Jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari lotua egon ote den.

d) Zein zen udalaren finantza-egoera 2004ko abenduaren 31n.

e) Berriozarko Udalaren finantzen egoera-orriaren informazio osagarrian eta azalpen oharretan ageri diren datuen eta iruzkinen onargarritasuna eta koherentzia.

f) Egin zuen azken fiskalizazio-txostenean, zeina 2003ko ekitaldiari buruzkoa baita, Comptos Ganberak eman zituen gomendioak noraino bete diren.

III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak, bere jarduketa programarekin bat, Berriozarko Udalaren (aurrerantzean, "udala") finantzen egoera-orrien fiskalizazioa egin du; egoera-orri horietan sarturik daude 2004ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria, aurrekontu-emaitza eta diruzaintzako gerakina, eta 2004ko abenduaren 31ko egoeraren balantzea, bai eta finantzen egoera-orri horien informazio osagarria eta azalpen oharrak ere, 2004ko ekitaldikoak.

Udalak Kontabilitate publikoari buruzko plan orokorra ezarrita dauka.

Beraz, eginiko lanak hauxe izan du arretagai: dirusarrera eta gastuei buruzko kapitulu ekonomikoak eta ondare-masak berrikustea, eta antolamenduari, kontabilitateari eta barne-kontrolari dagozkion hainbat puntu aztertzea.

Lana egin dugu Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako fiskalizazio printzipioei eta araei jarraituz eta aurreko urteetako lanetan agerian gelditu diren baldintzen eta arazoan arabera beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatuz.

Txostenean daude, halaber, udalaren antolamendua, barne-kontrola, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko beharrezkotzat jotzen ditugun iruzkin eta gomendioak.

Udaleko eta haren erakunde autonomoetako langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

IV. IRITZIA

Egindako fiskalizazioaren barruan, 2004ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiari dagozkion Berriozarko Udalaren finantzen egoera-orriak aztertu ditugu, zeinak udalaren ardurapean egin baitira.

Berrikuspena egitean, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako sektore publikoaren auditoria arau eta prozedurak aplikatu dira.

IV.1. 2004ko AURREKONTU BATERATUAREN LIDIKAZIOARI DAGOKIONEZ

Erantsi dugun 2004ko aurrekontu bateratuaren likidazioaren egoera-orriak eta oharrek behar bezala agertzen dute, garrantzizkoak diren alderdi guztiei dagokienez, ekitaldiko jarduera eta 2004ko abenduaren 31ko aurrekontu-egoera.

IV.2. 2004ko ABENDUAREN 31ko ONDARE-EGOERAREN AGERPENEA

Erantsi dugun 2004ko abenduaren 31ko egoera-balantzeak eta oharrek behar bezala agertzen dute udalaren finantza- eta ondare-egoera.

IV.3. LEGEZKOTASUNA

Oro har, udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari jarraituz egin da.

IV.4. 2004ko ABENDUAREN 31ko FINANTZA-EGOERA

Hasierako aurrekontua 5.915.200 eurokoa da, eta behin betikoa, 6.003.044 eurokoa. Gastuen betetze-maila ehuneko 94koa da, eta dirusarrerena, ehuneko 109koa.

2004ko ekitaldian gora egin dute dirusarreraren betetzearen ehunekoak eta gastuen betetzearenak. Azken horien artean, zuzeneko zergen betetzea ehuneko 113koa izan da, eta zeharkakoena ehuneko 225koa; bi kapitulu horiek ekitaldiko dirusarreraren ehuneko 28 egiten dute. Udalaren baliabideen ehuneko 57 transferentzietatik datoz. Finantza-pasiboetan 2004an kontratatutako 1.412.100 euroko kreditua dago erregistraturik.

Ekitaldia ixtean aurrekontuko emaitza doituia 1.062.894 euroko superabita zen. 2004ko abenduaren 31ko zorra 1.412.100 eurokoa da, eta 2003ko abenduaren 31ko zorra birfinantzatzeko aldera eta inbertsio errealak ordaintzeko aldera ekitaldi horretan hitzartutako kreditutik heldu da.

Berriozarko Udalaren 2004ko abenduaren 31ko finantza-egoeraren bereizgarri dira ehuneko 10eko aurrezki garbia eta 899.784 euroko diruzaintzako gerakina.

IV.5. INFORMAZIO OSAGARRIA ETA AZALPEN OHARRAK

Finantzen egoera-orri bateratuen informazio osagarrian eta azalpen oharretan beharrezkoa den informazioa dago haiek ongi interpretatu eta ulertzeko. Nabarmendu beharra dago, orobat, udalak eraginkortasunari eta efizientziari buruzko kapituluaren sartutako informazioa.

IV.6. GOMENDIOEN JARRAIPENA

Oro har, esan daiteke 2003ko ekitaldiari buruzko txosteneko administrazio- eta kontabilitate-izae-rako gomendio nagusiak aintzat hartu izan direla, eta horiek behar bezala aplikatzeko neurri egokiak hartzen ari direla.

IV.7. ONDORIO OROKORRA

Laburtuz, eta ondorio orokor gisa, esan genezake udalak egokiro kudeatzen dituela bere aurrekontuak, ekonomia eta finantzak.

Halere, azpimarratu behar da ezen finantza-egoerak defiziterako joera duela, nahiz eta ekitaldi honetan egoera hori hobetu den, gastu arruntari eutsi, dirusarrerak hazi eta zorra birfinantzatzeari esker.

Egoera horrek nahitaez dakar berekin bideragarritasun plan baten beharra, zeinean adierazi beharko baitira eman beharreko zerbitzuak, haien kostua, kostu horretatik zenbat jasanaraziko zaion, kasua bada, erabiltzaileari, eta udalak eskueran dituen finantzaketa-iturriak. Plan hori egitea nahitaezkoa da finantza-oreka berriro lortzera bideraturiko neurriak hartu ahal izateko.

V. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

V.1. ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA

2004ko ekitaldian ez da nabarmentzeko moduko adjudikaziorik egin obren eta zerbitzuen arloan. Halere, eskola publikoaren aparkalekuko obren kontratazioari buruzko espedientea aztertu dugu, eta egindako azterketaren arabera, indarreko araudia behar bezala bete da, eta zuzen egin da expediente horren kontabilitate- eta administrazio-jarraipena

V.2. Kudeaketari buruzko bestelako gomendioak

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, gure aburuz udalak bere egin behar dituen gomendio nagusiak, bere antolaketa-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko.

V.2.1. Antolaketa orokorra

Barne araubideari buruzko erregelamendua egitea, horren bidez udaleko organo exekutiboen eskumenak definitu eta euren artean banatzeko eta erakunde autonomoekiko harremanak arautzeko.

Oinarrizko kudeaketa-prozedurak idatziz jartzzea, eta exekuzio-faseetarako arduradunak identifikatu eta esleitzea.

Udalaren aurrekontuak onestea legedi indardunean ezarritako epeetan.

V.2.2 Inbentarioa-lbilgetua

Ibilgetu-aseguruen estaldura igotzea, halako moldez non behar bezala estalita egotera iritsiko baita.

Francisco Javier Sesma Masa auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, araudi indardunak ezarritako tramiteak bete ondoren.

Iruñean, 2005eko abenduaren 27an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

Barañaingo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Barañaingo Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Barañaingo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (20. or.).
- II. Helburua (21. or.).
- III. Norainokoa (21. or.).
- IV. Iritzia (22. or.).
 - IV.1. 2004ko aurrekontu bateratuaren lidikazioari dagokionez (22. or.).
 - IV.2 2004ko abenduaren 31ko ondare-egoe-raren agerpena (22. or.).
 - IV.3 Legezketasuna (22. or.).
 - IV.4 2004ko abenduaren 31ko finantza-egoera (22. or.).

IV.5 Informazio osagarria eta azalpen oharrak (22. or.).

IV.6 Gomendioen jarraipena (22. or.).

IV.7 Ondorio orokorra (22. or.).

V. Iruzkina, ondorioak eta gomendioak (23. or.).

V.1 Administrazio-kontratazioa (23. or.).

V.2 Kudeaketari buruzko bestelako gomendioak (24. or.).

V.3 Gorabeherak eta ondorengo gertaerak (24. or.).

VI. Barañaingo Auditorioaren fundazioa (25. or.).

1. eranskina. Barañain Auditorioa Fundazioa (25. or.).

2. eranskina. 2004ko abenduaren 31ko finantzen egoera-orri bateratuak.

(Oharra: aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta ondoko webgunean:
www.cfnavarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

Barañaingo Udalak 22.529 biztanle ditu eta hauexek dira bertako zifra adierazgarrienak 2004ko abenduaren 31n:

Entitatea	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko eskubideak	Langileak, 2004an
Udala	13.059.602	12.520.592	132
Lagunak	1.656.577	1.652.972	25
Luis Morondo	771.928	797.381	15
Guztira	15.488.107	14.970.945	172

Udalak, 2003ko urtarrilaren 17an, eratu eta bere babespean ezarri zuen Barañaingo Auditorioaren Fundazioa; haren xedea da Barañaingo Arte Eszenikoen Zentroa kudeatu eta administratzea. 2004ko ekitaldian 853.770 euroko dirusarrerak eta 993.853 euroko gastuak izan ditu.

Udala sarturik dago Iruñerriko Mankomunitatean, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak eta eskualdeko hiri-garraiokoak.

II. HELBURUA

Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 10/2004 Foru Legeari jarraituz, Barañaingo Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2003ko ekitaldiko kudeaketa ekonomiko-finantzarioa eta gastuen eta dirusarreraren aurrekontuen betetzea fiskalizatu ditugu.

Fiskalizaturiko toki entitateari aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute: arestian aipatutakoak eta Toki araubidearen oinarriak arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko Langileen Estatutua, hirigintza-kudeaketa eta administrazio-kontratazioa arautzen duen araudia eta Nafarroako toki entitateari aplikatzekoa den gainontzeko araudia.

Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira, zeinak aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta Nafarroako toki administratziarako kontabilitateari buruzkoak baitira.

Txostenaren helburua da honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea:

a) Barañaingo Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2004ko ekitaldiko aurrekontuaren garapena eta betetzea.

b) 2004ko abenduaren 31ko ondare-egoeraren agerpena, aplikatzekoak diren kontabilitate-printzipioei jarraituz.

c) Jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari lotua egon ote den.

d) Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2004ko abenduaren 31ko finantza-egoera.

e) Barañaingo Udalaren finantzen egoera-orri bateratuen informazio osagarrian eta azalpen oharretan ageri diren datuen eta iruzkinen arrazoizkotasuna eta koherentzia.

f) Egin zuen azken fiskalizazio-txostenean, zeina 2003ko ekitaldiari buruzkoa baita, Comptos Ganbera honek eman zituen gomendioak noraino bete diren.

III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak, bere jarduketa programarekin bat, Barañaingo Udalaren (aurrerantzean, "udala") eta haren erakunde autonomoen –Lagunak udal zerbitzua eta Luis Morondo Musika Eskola– finantzen egoera-orri bateratuen fiskalizazioa egin du; egoera-orri horietan sarturik daude 2004ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria, aurrekontuen emaitza eta diruzaintzako gerakina, eta 2004ko abenduaren 31ko egoeraren balantzea, guztiak bateratuak, bai eta 2004ko ekitaldiko finantzen egoera-orri horien informazio osagarria eta azalpen oharrak ere.

Udalak eta bere erakunde autonomoek ezarrita dute kontabilitate publikoari buruzko plan orokorra.

Beraz, eginiko lanak haxe izan du arretagai: dirusarrera eta gastuei buruzko kapitulu ekonomikoak eta ondare-masak berrikustea, eta antolamenduari, kontabilitateari eta barne-kontrolari dagozkion hainbat puntu aztertzea.

Lana egin dugu Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako fiskalizazio printzipioei eta arauari jarraituz eta aurreko urteetako lanetan agerian gelditu diren baldintzen eta arazoaren arabera beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatuz.

Txostenean daude, halaber, udalaren antolamendua, barne-kontrola, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko beharrezkotzat jotzen ditugun iruzkin eta gomendioak.

Azterketa lana 2005eko ekainean egin da.

Udaleko eta haren menpeko erakunde autonomoetako langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

IV. IRITZIA

Eginiko fiskalizazioaren barruan, Barañaingo Udalaren eta haren erakunde autonomoen finantzen egoera-orri bateratuak, 2004ko abenduaren 31n amaituriko ekitaldikoak, aztertu ditugu. Egoera orri horiek udalaren ardurapean egin dira.

Eginiko azterketan oinarrituz, hona gure iritzia:

IV.1. 2004ko AURREKONTU BATERATUAREN LIDIKAZIOARI DAGOKIONEZ

Erantsi dugun 2004ko aurrekontu bateratuaren likidazioaren egoera-orriak eta oharrek behar bezala agertzen dute, garrantzizkoak diren alderdi guztiei dagokienez, ekitaldiko jarduera eta 2004ko abenduaren 31ko aurrekontu-egoera.

IV.2. 2004ko ABENDUAREN 31ko ONDARE-EGOERAREN AGERPENA

Erantsirik dagoen 2004ko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratuak eta oharrek behar bezala agertzen dute udalaren finantza eta ondare-egoera, salbu eta ondasunen (ibilgetua) inbentarioaren kasuan, gaurkoturik ez dagoelako -1992koa da-.

IV.3. LEGEZKOTASUNA

Oro har, udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezketasun-printzipioari jarraituz egin da.

IV.4. 2004ko ABENDUAREN 31ko FINANTZA-EGOERA

Behin betiko aurrekontu bateratua 17.880.058 eurokoa da, eta betetakoa 15.188.484 eurokoa gastuetan eta 14.671.321 eurokoa dirusarreretan; gastuen betetze maila, berriz, ehuneko 85ekoa da gastuetan eta ehuneko 82koa dirusarreretan.

2004ko ekitaldian transferentziek udalaren dirusarreraren ehuneko 41 egin dute eta zergek ehuneko 38. Zuzeneko zergen betetze maila ehuneko 96koa izan da eta zeharkakoena (EIOZ) ehuneko 14koa, aurrekontuko aurreikuspena justifikatu zuten etxebizitzak ez baitira eraiki. Bestalde transferentzia arrunten ehuneko 96 bete da. Azkenik, inbertsio errealean besterenganatzearen kapitulua ehuneko zazpi bete da soilik.

Ekitaldia ixtean defizit bateratua 517.162 eurokoa zen, eta aurrekontuko emaitza doitua 385.122 euroko defizita izan da.

Ekitaldi horretako zorra 2.527.700 eurokoa izan da, epe luzeko kreditu bat ireki baita aurreko ekitaldietan egindako inbertsioak ordaintzeko.

Udalaren finantza egoeraren ezaugarriak dira: ehuneko 1,84ko aurrezki garbi negatiboa eta 23.790 euroko diruzaintzako gerakin negatiboa gastu orokorretarako.

IV.5. INFORMAZIO OSAGARRIA ETA AZALPEN OHARRAK

Finantzen egoera-orri bateratuen informazio osagarrian eta azalpen oharretan beharrezkoa den informazioa dago haiek ongi interpretatu eta ulertzeko.

IV.6. GOMENDIOEN JARRAIPENA

Oro har, esan daiteke 2003ko ekitaldiari buruzko txosteneko administrazio- eta kontabilitate-izae-rako gomendio nagusiak aintzat hartu izan direla, eta horiek behar bezala aplikatzeko neurri egokiak hartzen ari direla.

IV.7. ONDORIO OROKORRA

Laburtuz, eta ondorio orokor gisa, esan genezake udalak egokiro kudeatzen dituela bere aurrekontuak. Halere, gure ustez udalak gai haiek aintzat hartu beharko lituzke:

Finantzen ikuspegitik, udalak agortu egin du baliabide berekiak sortzeko gaitasuna. Horrek behartu du epe luzeko kreditu bat eskatzera bere beharrezkoen aurre egin ahal izateko. Funtsean, egoera honek honakoak egin daitezela eskatzen du:

a) Lehentasuna daukaten udalaren beharrezkoen buruzko proiektio ekonomiko-finantzarioak eta horien finantzaketa iturriak.

b) Aplikatzekoa den presio fiskalari buruzko azterlanak.

c) Zerbitzuen kostuari eta herritarrengan duen eraginari buruzko analisia.

d) Azterlanak egin oinarritzekoak edo nahitaezkoak ez diren zerbitzuak emateari buruzko erabakiak hartu aurretik.

Hori guztia bideratuta dago udalaren finantza-bideragarritasuna bermatzera, azken urteotan jaitsi egin baitira udalaren dirusarrerak, eta igo, aldiz, gastu arruntak, oroitidazkiaren IV. atalean zehazten den bezala.

Erakunde autonomoei dagokienez, beharrezkoa da haien estatutuak osatu eta gaurkotzea, horrela haien benetako autonomia maila agertzera emateko eta udalak haien jardueraren gainean erabiltzen dituen kontrol eta zaintza mekanismoak erakusteko.

Alabaina, ez da ahaztu behar erakunde horien eragiketak, entitate publikoak direnez gero, kontu-hartzailletza publikoari lotuak daudela; horregatik, eginkizun hori benetan burutu ahal izateko egoki diren prozedurak taxutu behar ditu udalaren kontu-hartzailletzak.

Halaber, gaur egungo kontabilitate-sistema erakunde horien kudeaketa-eskakizunei egokitu ote dagoen aztertu behar da; benetako beharizanen eta kontabilitate publikoko betekizunen artean oreka aurkitzen saiatu behar da.

V. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

V.1. ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA

Atal honetan xeheaturik agertuko ditugu, alde batetik, hornidurak erosi eta zerbitzuak emateari buruzko alderdiak eta, bestalde, inbertsioen analisia.

V.1.1. Hornidurak erosi eta zerbitzuak ematea

Zerbitzuak kontratatzeke espediente hauek aztertu ditugu:

Kontratua	Prozedura	Lizitazioa	Adjudikazioa
Haur eskolaren garbiketa	Lehiaketa	56.000	55.986
Laguntza teknikoa.	Negoziatua publizitatearekin	48,28 euro/ordua	42 euro/ordua

Horiek aztertuta, ondorioa da kontratua legeak eskatzen duenari jarraikiz tramitatu dela.

Udalean prozedura normalizatua aplikatzen da erosketen kudeaketarako, eta idatziz agertzen da tramiteak eta arloak zein diren.

V.1.2 Inbertsioak

Inbertsio espediente hauek aztertu ditugu:

Obra	Prozedura	Lizitazioa	Adjudikazioa
San Esteban eta Zumardia plaza berritzea	Lehiaketa	439.745	382.482
Los Sauces I.P. egokitzea	Lehiaketa	198.967	140.570
Eultza I.P. egokitzea	Lehiaketa	199.744	178.771

Horiek aztertuta, ondorioa da kontratazioaren gaineko araudia bete egin dela, publizitatea eta lehiaren oinarriko printzipioak errespetatuz bai eta indarra duen araudian ezarritako gainerako eskakizunak ere, hasierako jarduketei, adjudikazioari, kontratuaren formalizazioari eta betetzeari dagokienez.

V.1.3. Erakunde autonomoen inbertsioak

Kontu-hartzaileak aurkako bi txosten egin ditu prezio kontrajarriak onestu izanari buruz. Txosten horiek Lagunak elkarteko aldageletako obretako gastua handitzeari eta Musika Eskola eta Kultur Etxeko sotoak egokitzeko gastua handitzeari buruzkoa dira; izan ere, ez direnez ustekabeko

edo bat-bateko egoerak, gastu hori kontuan hartu behar zen onetsitako hasierako aurrekontuan.

V.2. KUDEAKETARI BURUZKO BESTELAKO GOMENDIOAK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, Comptos Ganbera honen aburuz udalak jarraitu behar dituen gomendio nagusiak, bere antolamendu, prozedura, kontabilitate eta barne-kontrolako sistemak hobetzeko.

V.2.1. Antolaketa orokorra

Hauxe gomendatzen dugu:

- *Barne araubideari buruzko erregelamendu bat onestea, horren bidez udaleko organo exekutiboen eskumenak definitu eta euren artean banatzeko.*

- *Musika Eskolaren estatutuak udalaren egungo antolaketari eta egiazko funtzionamenduari egokitzea; batik bat udalak berak betetzen dituen kontrol eginkizunei, eskolak kudeaketa-autonomiarako duen egiazko gaitasunari eta udalaren kontuhartzaitzak esleitua duen eginkizunari dagozkien alderdiak.*

- *Betebeharrak edo eskubideak eragiten dituen erakunde autonomoen egintza orok kontuhartzaitzaren edo barne kontrolaren menpe egon behar du.*

V.2.2 Inbentarioa-ibilgetua eta zordunak (balantzea)

- *Udal inbentarioa gaurkotu eta onestea, 1992an eginikoa ez baitzen onetsia izan, ezta ondoren gaurkotua ere.*

- *Udal inbentarioa etengabe gaurkatzeko eta hura kontabilitatearekin konektatzeko bidea emanen duten prozedurak diseinatu eta aplikatzea, ibilgetuari buruzko altak eta bajak kontabilizatu eta dokumentazioa artxibatuzeko prozedurak definituz eta ezarriz, kontu hauei aplikatzekoak zaizkien irizpideen arabera.*

- *Ibilgetua osatzen duten kontabilitate-saldoak eta ibilgetua eskuratzeko jasotako diru-laguntzak aztertu eta garbitzea, udalaren ondasunak ongi isla ditzaten.*

- *Udal ondasunen eskrituratze eta erregistratze prozesua osatzea.*

- *Udalaren jabetzakoak diren lokal eta etxabeen erabilgarritasuna eta errentagarritasuna aztertzea.*

- *Balantzean kontabilizatzea biltzen zailak diren eta kobratzeko dauden eskubideei dagokien hornidura.*

V.2.3. Aurrekontuen egoera-orriak eta aldaketak

- *Kontuen Batzorde Bereziak kontu orokor bakarra lege ezarritako epean onetsi behar du.*

- *Aurrekontu orokor bakarra eta plantilla organikoa ekitaldia hasi baino lehen onetsi behar dira.*

V.2.4. Tributu bidezko dirusarrerak eta prezio publikoak

- *Ordenantzak aplikatu beharreko aurrekontu ekitaldiko lehen eguna baino lehen onestea, Toki administrazioari buruzko 6/1990 Legearekin bat.*

V.3. GORABEHERAK ETA ONDORENGO GERTAERAK

Gaur egun udala administrazioarekiko auzi prozedura batzuetan sarturik dago, eta horietatik ondorio ekonomikoak etor daitezke, prozesuaren une honetan ebaluatzen zailak:

- 1110/00 zenbakiko administrazioarekiko auzi errekurtsua, administrazioarekiko auzien salan abian dagoena, enpresa baten eta udalaren arteko hirigintza hitzarmena onetsi zuten 1999ko azaroaren 11ko erabakien kontra.

- 696/00 zenbakiko administrazioarekiko auzi errekurtsua, administrazioarekiko auzietako salan abian dagoena, HAPOn UO-20aren S1 eta S2 sektoreetan aldaketa puntual batzuk egiteko behin betiko onespenerari Nafarroako Gobernuak emandako ezezkoaren kontra.

Auzitegi eskudunak errekurtsu horiek ezetsi zituen ekitaldia itxita zegoelarik. Udalak, berriz, kasazio-errekurtsua aurkeztu zuen Auzitegi Gorenean.

VI. BARAÑAINGO AUDITORIOAREN FUNDAZIOA

Udalak, 2003ko urtarrilaren 17an, eratu eta bere babespean ezarri zuen Barañaingo Auditorioaren Fundazioa; haren xedea da Barañaingo Arte Eszenikoen Zentroa –udalaren titulartasunekoakudeatu eta administratzea.

2004ko ekitaldian, udalak 400.000 euro jarri zituen funtzionamendurako, baina gaizki kontabilizatu dira II. kapituluan, eta fundazioak 114.417 euroko defizita izan du.

1. eranskinean daude jasota fundazioaren bigarren ekitaldiko urteko kontu laburtuak, 2004ko ekitaldiari buruzkoak.

Francisco Javier Sesma Masa jauna arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak ezarritako tramiteak bete ondoren.

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 2an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

1. eranskina. Barañain Auditorioa Fundazioa

2003ko eta 2004ko abenduaren 31ko egoera-balantze laburtuak

(eurotan, hamarrekorik gabe, emanak)

AKTIBOA

	2004-12-31	2003-12-31
Ibilgetua	307.508	30.934
Ibilgetu ez-materiala	260.900	8.601
Ibilgetu materiala	46.608	22.333
Zenbait ekitalditan banatu beharreko gastuak	33.392	-
Aktibo zirkulatzaila	103.836	198.825
Erabiltzaileak eta beste zordun batzuk	92.054	194.284
Diruzaintza	11.782	4.541
Aktiboa, guztira	444.736	229.759

PASIBOA

Funts berekiak	-19.771	124.646
Fundazioaren zuzkidura	150.000	150.000
Aurreko ekitaldietako soberakin negatiboak	-25.354	0,00
Ekitaldiko soberakina	-144.417	-25.354
Epe luzeko hartzekodunak	236.566	0,00
Kreditu entitateekiko zorrak	236.566	0,00
Epe laburreko hartzekodunak	227.941	105.113
Kreditu entitateekiko zorrak	62.370	0,00
Merkataritzako hartzekodunak	140.597	91.986
Merkataritzaz kanpoko beste zor batzuk	24.974	13.127
Pasiboa, guztira	444.736	229.759

2004ko abenduaren 31n bukatu zen urteko ekitaldirako eta 2003ko urtarrilaren 17tik
abenduaren 31ra bitarteko ekitaldiko emaitza-kontu laburtuak

(eurotan, hamarrekorik gabe, emanak)

GASTUAK	2004	2003	DIRUSARRERAK	2004	2003
Ustiapeneko kontsumoa	35.429	29.538	Entitateak bere jardueraren ondorioz dituen dirusarrerak: dirulaguntzak, dohain., legat.	407.516	293.024
Langileen gastuak	246.342	73.733	Salmentak eta merkataritza jardueraren ondoriozko beste dirusarrera arrunt batzuk	196.461	113.525
Ibilgetuko amortizazioetarako zuzkidurak	21.478	1.942	Bestelako dirusarrerak	249.793	19.213
Bestelako gastuak	690.604	346.190			
Jardueraren horniduren aldaketa	0	438			
	<u>983.853</u>	<u>451.841</u>		<u>853.770</u>	<u>425.766</u>
Finantza dirusarrerak	478	729	Ustiapeneko emaitza negatiboak	140.083	26.075
Finantza-emaitza positiboak	0	721	Finantza-gastuak	5.312	8
			Finantza-emaitza negatiboak	4.834	0
Aparteko dirusarrerak	500	0	Jarduera arrunten emaitza negatiboak	144.917	25.354
Ez-ohiko emaitza positiboak	500	0	Zerga aurreko galerak	144.417	25.354
Sozietateen gaineko zerga	0	0			
			Ekitaldiko soberakin negatiboa (desaurrezkia)	144.417	25.354



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonia *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 43,95 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,15 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,30 »	